

ELKANO BROWNING CREAM “UH EH”

2013ko maiatzaren lehen bost egunak saloi batean itxita igaro zituzten Franck Mantegari, Dave Wilkinson eta Mikel Azpirozek, itsasoa aurrez aurre zutela, Donostiako Kontxaren gainean, eta horrela grabatu zuten “UH EH”, *Elkano Browning Cream*-en laugarren albuma. Artisau-diskoa da hau, kolorez betea; hiru musikariek musika paleta zabala erakusten dute, musika argitsu eta erritmo indartsukoetan murgilduta, estiloekiko konplexurik gabe. Jazzeko formatu klasikotik abiatuta - Hammond organoa, gitarra eta bateria-, tenkatzen dute hirukoa askoz haratago, paisaia afrikar, sortaldeko edo europar gauekoak iradokitzen dituzten konposizio magnetikoekin, beti ere tradizioaren eta egungo joeren arteko orekaren barruan. Hamahiru gai dira, diskoak irauteen duen 65 minutuko tartean entzulea eguneroko arazoetatik askatzeko modukoak.

Diskoaren prozesu osoan (konposizioa, grabazioa, nahasketa, edizioa) esku hartu du Mikel Azpirozek, hori baita bere filosofia, eta horrela Mamusik zigiluarekin ekoitzi eta argitaratu du albuma. Banaketa Ediciones Resistenciak egingo du; jadanik dendetan salgai dago “UH EH”.

2007an Elkano Browning Cream-ek izen bereko diskoa kaleratu zuenetik, taldearen ibilbideak ezaugarri hauxe izan du: musikari buruzko ikuspegi ertz askotarikoa; eta horrela ateratzen dira ñabarduretan aberats diren diskoak, melodia landuekin eta osagai erritmiko ahaltsuarekin. Mikel Azpiroz pianista eta organista donostiarrak koordinatuta, taldea osatzen dute Franck Mantegari bateria-jotzaile paristarrak eta Bartzelonan bizi den Dave Wilkinson gitarrista britaniarrak. Aldi berean, nork bere kolaborazioak egiten ditu beste musikari batzuekin, horien artean Alpha Blondi, Saint Germain, Brian Jackson edo Jabier Muguruza. Bagaje horri taldearen nazioarteko izaera gehituta, emaitza da nortasuna daukan jazz, eklektikoa eta exotikoa. 2010ean argitaratu zuten “2” albuma, lehenengoaren ildotik, eta 2012an “Bohemia”, doinu zingaroz osatutako bitxi bat, kaleko musikarien omenezkoa. Orain, “UH EH”-rekin, nabarmen agertzen dira taldearen heldutasuna eta sendotasuna.

Taldearen kultur aniztasunak badakar beste ondorio bat ere: halako joera nomada bat. USAn hasi zirenetik –han ezagutu zuten elkar-, taldeak Europa, Amerika, Asia eta Ozeaniako hainbat jaialdi eta tokitan jo du: Donostiako Jazzaldian, Woodford Folk Festival-en (Australia), Shangaiko Cotton Club-en (Txina), Quitoko Jazz Festibalean (Ecuador), Delhiko Jazz Festibalean (India), Madrilgo Los Veranos de la Villa emanaldietan, Getafeko Cultura Inquietan-n...

Taldea:

Dave Wilkinson: gitarra, ahotsa

Franck Mantegari: bateria

Mikel Azpiroz: Hammond B3, pianoa

Tfn: +34656719650 / contact@elkanobrowningcream.com www.elkanobrowningcream.com

Taldea: Elkano Browning Cream

Albumaren izenburua: UH EH

Zigilua: Mamusik

Banaketa: Ediciones Resistencia

Aurreko diskoak: *Elkano Browning Cream* (Mamusik 2007), 2 (Mamusik 2010), *Bohemia* (Mamusik 2012)